



txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2000 Abendua • 18. zenbakia



HAURTZARO INFORMATZEN

• 2 urteko eta 3 urteko ikasle berriak	3
• Beñar Kazabon HH eta LHko ikasketaburu berria	5
• Joxean Arrubarrena atezain lanetan	5
• Batzar Nagusia	6
• "Kontsumo tailer mugikorak" programa	7
• Ikaspilota	8
• Heziketa afektibo sexualeko saioretarako aditu bat ikastolan	9
• DBH2koak ZERAINen	10
• I. Hiruhileko irteerak	10

HATZAK BETE LAN

• Asteburuaren atarian	13
• 4 urtekoek San Martin Eguna ospatu dugu	13
• Txillidaren Artelana	14
• Aireportua ezagutzen	14
• Oiartzun lehen	15
• Baserria	15
• Bulboak landatzen	16
• Baratze	16
• DBHko ikasleak ikasgeletatik kanpo	17
• Zientzia tailerra	18
• Idazlana: Zoriontasunaren bidean	23
• Olerkiak: Zergatik?	24

GURASOOK JAKIN DEZAGUN

• Humanitateen dekretua dela eta	25
• Elkarriketa: Julen Idarreta	26
• Elikadurak kezkatzen gaitu	29

GU ERE KAZETARI

• Carlowen-ra ingelesa ikastera	32
• Haurtzaro mendi taldearen irteerak	34
• Irakur gomendioa: Misterioa Pirinioetan	36

NAHASTE BORRASTE

• Negu puzzlea	37
• Olagarro gaixoa!	37
• Hizki zopa	38
• Labirintoa	38
• Ezberdintasunak	39
• Errezeta	39

ERANSKINA: USUE JUANES	19
------------------------------	----



2 URTEKO eta 3 URTEKO IKASLE BERRIAK: BIHOTZ-BIHOTZEZ ONGI ETORRI IKASTOLARA

Oso pozik gaude aurten Haurtzaro ikastolan. Izan ere Haurtzaro Ikastola Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoarekin batera handituz doa urtetik urtera. Aurtengo ikasturte berri honetan gure Ikastola handi honetan partaide berriak ditugu: Beñat, Maider, Josune, Aitor, Karen, Mirari, Jon... Guztira 53 ikasle 3 urtetan; eta 52 ikasle 2 urtetan. Ez da nolanahiko pagotxa. Oso ikasle jatorrak dira eta dagoeneko ikusten ditugu ikastolatik barrena gure txoko guztiak begiratzen, ezagutzen... Elkarrekin ere gustura moldatzen dira, lagun berriak egiten ari baitira.

ONGIETORRIA eman nahi diegu guztiei, bai ikasle bai gurasoei ere, eta gure artean gustura aurki zaitezten ahaleginak egingo ditugu. Aurrera!!

Desde los dos-tres años hasta los dieciséis estaréis entre nosot@s. Como l@s anteriores alumn@s, vosotr@s también esparciréis por Oiartzun la semilla de la Ikastola. Damos la bienvenida tanto a l@s niñ@s como a los padres-madres. Queremos que vengáis a gusto. A tod@s os deseamos una escolaridad agradable y fecunda.¡¡ BIENVENID@S tod@s de todo corazón!!

2 URTEKO TALDEAK

A Taldea – Ainhoa GARAÑO

1. Imanol Agirre Lertxundi
2. Sara Alberdi Oyarzun
3. Ainara Alkorta Lucero
4. Jokin Dehesa Urkia
5. Aritz Leonet Aranburu
6. Josu Leonet Aranburu
7. Ane Lizarraga Etxeberria
8. Unai Loiarte Miguel
9. Oier Lopez Jimeno
10. Aitzol Gaztelumendi Rekalde
11. Haizea Telletxea Artola
12. Eider Tomé Etxeberria
13. June Urrea Agirrezabala

C Taldea – M^a Jose ZUMETA

1. Maddi Agudo Lizaso
2. Alaitz Cachafeiro Torrubia
3. Mikel Etxebeste Gallardo
4. Larraitx Etxebeste Lizaso
5. Markel Galdos Cardeñoso
6. Izar Gazteluemendi Beristain
7. Diego Hernandez Martinez
8. Maddi Ibarguren Elozegi
9. Mattin Kazabon Cousillas
10. Oihane Montero Benavente
11. Iker Mujika Diez
12. Maria Rodriguez Perales
13. Aritz Valderrama Crujeiras

B Taldea – Izaskun SISTIAGA

1. Ane Arruti Salaberria
2. Maialen Claver Roma
3. Udane Claver Roma
4. Ane Cruz Oliden
5. Ane de Juan Damborena
6. Aitor Duran Canelada
7. Larraitx Etxarte Beloki
8. Eneko Goikoetxea Aizpurua
9. Daniel Gonzalez Martinez
10. Izaro Idarreta Cardona
11. Lander Isasa Zufiria
12. Nagore Iza Outeria
13. Iker Mitxelena Ugalde



**D taldea: Rexu UGALDEBERE**

1. Joseba Alvarado Delgado
2. Josu Apezetxea Otegi
3. Eneko Artola Telleria
4. Garazi Ezkerro Ameztoti
5. Estibalitz Fernandez Urkia
6. Uxue Flamarique Martinez
7. Goiatz Goiria Mitxelena
8. Ioritz Labandibar Sagarzazu
9. Beñat Lizarazu Bergara
10. Oihan Mancicior Otaegi
11. Adur Oiartzabal Larzabal
12. Eki Sagarzazu Zapiain
13. Haizea Urkia Larrañaga

3 URTEKO TALDEAK**A taldea: Arantza MADARIAGA**

1. Gorka Aduriz Cardona
2. Olaia Aduriz Esnaola
3. Borja Alustiza Treku
4. Ekaitz Benitez Aranburu
5. Josune Campano Garcia
6. Julen del Río Muguerza
7. Maialen Elorza Otaegi
8. Jon Garzia Barrenetxea
9. Aitor Ibargüen Alzugarai
10. Ane Lujanbio Sistiaga
11. Jara Lujanbio Sistiaga
12. Aitor Mendiburu Botas
13. Maider Olaizola Guerrero
14. Gotzon Retegi Rekalde
15. Aitor Sagastui Arbide
16. Olatz Sarasti Bengoetxea
17. Mirari Urdapilleta Arruabarrena
18. Patricia Zaldua Dominguez

**B taldea: Lide LABANDIBAR**

1. Nahia Apezetxea Otegi
2. Aitor Eizmendi Etxeberria
3. Martin Etxeberria Oiartzun
4. Ane Ibarguren Darzeles
5. Enara Irigorri Calzada
6. Josu Jimeno Porras
7. Jokin Lekuona Zabala
8. Karen Muñoz Etxebeste
9. Beñat Oiarbide Agirrezabala
10. Irati Oiartzun Espinosa
11. Leire Olaizola Yarza
12. Aritz Olarte Lopez de Luzuriaga
13. Jon Otegi Odriozola
14. Haizea Prieto Cuesta
15. Zigor Salaberria Mitxelena
16. Maialen Stephens Txurio
17. Ekain Susperregi Ibarguren
18. Mikel Urdanpilleta Astibia

**C taldea: Itziar MUGURUZA**

1. Julen Alkain Garzia
2. Haizea Castaño Coedo
3. Irati Elizasu Roteta
4. Julen Etxebeste Andueza
5. Gorka Ezkurdia Irastorza
6. Izar Fernandez de Gorostiza Diez.
7. Lide Ibarguren Gaztelumendi
8. Maddi Ibarguren Gaztelumendi
9. Intza Loperena Gogorza
10. Emilio Martinez Hernandez
11. Iratitz Mateo Gogorza
12. Unai Mitxelena Puy
13. Aitzol Salaberria Lekuona
14. Amets Sarra Elizondo
15. Aitzol Toledo Aizpurua
16. Aitor Torres Gutierrez
17. Xabier Trigo Perez



Orain hasi eta datozen urteetan ere gure artean izango ditugu. Gehienak Haur Hezkuntzan hastera doaz. Beste batzuk Lehen Hezkuntza edo DBH egitera etorri zarete gure ikastolara. Besteak beste, bihotzeko ONGI ETORRIA zuei ere eta Haurtzaron gure artean gustura aurki zaitezten ahaleginak egingo ditugu. Hauek dira ikasle horiek, eta zein mailatan hasi diren adieraziko dizuegu:

- Jon Cortes Carrizo eta Mikel Gonzalez Martinez HHko 5 urtetan hasi dira.
- Aritz Mendibil Arrieta eta Mikel Salaberria Mitxelena LHko 2. mailan hasi dira.
- Garazi Leibar Darzeles DBH 1. mailan hasi da.
- Urtzi Osa Aristizabal DBH 2. mailan hasi da.

Aunque la mayoría de I@s alumn@s se incorporan en la Ikastola en Ed. Infantil, algunos lo hacen en otros cursos. A todos ellos les damos también la bienvenida y deseamos que se encuentren a gusto entre nosotr@s. Nos esforzaremos en conseguirlo.

BEÑAR KAZABON HH ETA LHKO IKASKETABURU BERRIA

Este curso escolar se ha incorporado Beñar Kazabon en las labores de jefa de estudios de Ed. Infantil y Primaria. En los últimos cinco años Sorkunde LeKuona había sido la responsable de dichas funciones y llegaba ya la hora del relevo. A finales del curso pasado, siguiendo el procedimiento marcado para ello, fue elegida Beñar Kazabon. Se trata de una profesora que lleva 22 años en nuestra ikastola, ejerciendo las funciones de profesora, tanto en Ed. Infantil como en Primaria. Por tanto, cuenta con una amplia experiencia en dichas etapas educativas. Desde estas líneas le dedicamos nuestra bienvenida. Sabemos que la ilusión y la dedicación que exige este cargo no le faltan a Beñar.



Azkeneko urteetan Sorkunde Lekuona izan da HH eta LHko ikasketaburua. 1994/95 ikasturtean Sorkundek utzi zuen zuzendariaren kargua eta HH eta LHko ikasketaburua izateko ardura hartu zuen iazko ikasturtea arte. Beraz, urte mordoxka horiek lanpostu horretan bete ondoren, bere ondorengoa aukeratzen ez zen lan erraza izan. Izan ere, denoi asko kostatzen zaigu gauden lanpostua utzi eta erantzukizun handiko batean hastea, aldez aurretik gehiegi ezagutu gabe zer izango den.

Nolanahi ere, aldaketari heldu behar genion, eta horretarako markatu-tako prozedura jarraituz, Beñar Kazabon aukeratu zen. Beñar Kazabon oiartuarra dugu, Gurutze auzoan jaioa, eta azkeneko hogeita bi urteetan Haurtzaro Ikastolan irakasle lanetan jardun du, HHn eta LHn, hain zuzen ere. Beraz, esperientzia handiko pertsona da. Dagoeneko buru-belarri ari da lanean, bere karguak eskatzen dion dedikazioa eskainiz, eta egin beharreko lanez jabetuz. Guztion laguntza beharko du hasiera batean, eta horretan ahalegindu beharko dugu. Ilusioa eta lanerako gooa berekin du. Aurrera bada!!

JOXEAN ARRUBARRENA ATEZAIN LANETAN



Jakina da dagoeneko Joxe Ostolazak hartu duela erretiroa. Bai halaxe da, joan zen ikasturtean egin genion merezitako omenaldia. Bere hutsunea betetzen Joxean Arrubarrena dugu. Azkeneko zortzi urteetan irakasle lanetan aritu baldin bada ere Haurtzaro Ikastolan, orain beste era bateko lanetan dabil, eta atezain lanpostuak eskatzen duen dedikazioa lana betetzen ari dela ikusten dugu.

Goizetan idazkaritzan aritzen zaigu, egin beharreko fotokopiak... prestatzen. Arratsaldetan, berriz, horko eta hemengo konponketak bideratzen. Aski langile fina dugu Joxean, eta dagoeneko Joxek jarritako bidea ederreki betetzen ari da.

Bejondeiola lan berria JOXEANI!!

Este curso escolar tenemos que dar la bienvenida a Joxean Arrubarrena como nuevo conserje de nuestra ikastola. El curso pasado despedimos a Joxe Ostolaza debido a su jubilación y el hasta ahora profesor Joxean será quien de ahora en adelante le sustituya. Así a las mañanas podemos verle en secretaría dedicándose a sacar las fotocopias...después de abrir todas las puertas de la ikastola. Por las tardes, en cambio, se dedica a realizar pequeñas reparaciones...entre otros trabajos. Desde estas líneas le deseamos que este nuevo trabajo sea satisfactorio para él y para todos nosotros.



OHIKO BATZAR NAGUSIA EGIN ZEN AZAROAREN 24AN

Azaroaren 24an, 2000-01 ikasturteko Batzar Nagusia egin genuen Haurtzaro Ikastolan. Lehendakariak eman zion hasiera Batzarrari, Kontseilu Erretoreak prestatutako agurra irakurri.

Ondoren, zuzendariak hezkuntza arloko xehetasunak agertu zituen, eta honen segidan, administrariak gestio arloko azalpena egin zuen.

Jarraian, aurtengo gai nagusien tarteari heldu zioten Haurtzaroko arduradunek, eta besteak beste, gai hauek jorratu zituzten:

Lehenengo gaia garraio kuotaren berriztapena izan zen. Haurtzaro Ikastolako historia labur honetan, Garraio Kuotak elkartasunezko irizpidea izan du bere baitan. Garraio zerbitzua erabiltzen dutenek ez dute kostu guztia bere gain hartzen, eta urtero sortzen den defizita Irakaskuntza kuotak hartzen du bere gain. Azkeneko hamabost urteetan kuota hau ukitu ez bada ere, defizita handiagotu ez dadin igotzea ttiki bat proposatu zuen Kontseilu Erretoreak.

Bigarren gaia Estatutu Sozialen artikuluko batzuen zuzenketa izan zen. 1994ko abenduaren 3an Haurtzaro Ikastolan egin zuten Batzar Nagusia, 93/03 Kooperatiba Legearen arabera estatutuak eraberritu zituzten. Notaritzatik protokolizatu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Kooperatiben Erregistrora eraman zituzten. Eta handik bi urtera, erregistratu ahal izateko zenbait zuzenketa egin behar zituztela adierazi zieten. Batzar Nagusia zuzenketa horiek bideratu genituen.

Hirugarren gaia Oiertzungo Udal Ikastola Partzuergoa izan zen. 1999ko apirilean martxan jarritako Partzuergoak dagoeneko bere lehen urratsak egin ditu eta horren berri jasoko dute bertaratutako langile eta gurasoek.

Gustura gaude Partzuergoko kideok. Izan ere, aurtengo matrikulazio eskaerak iazkoak nabarmen gaititu ditu, eta guztiontzat erronka dela ezin uka. Oiertzungo herrian behar berriak dauden seinaleak zalantzarik gabe. Horretan gaitza: asmoak egia bihurtu eta biharkoari aurre eginez, arian-arian goaz Udal Ikastola gorpuzten. Aurtengo banaketan, bi urteko haur-talde bat gehiago erantsi behar izan dute (47 haur izatetik 53 haur izatera pasatu baitira aurtengo ikasturtean), eta beste adinetan ere eskaera gehiago izan dugu.

Laugarrenean, Oiertzungo Batxilergo ikastolari buruzko xehetasun nagusiak azaldu zituen zuzendariak.

Bukatzeko, Ikastolen Plan Integrala 2000-2005: Ikastolok beren etorkizuna prestatzen ari gara. Gai honen inguruan Ikastolen egoera ezagutu eta helburuak zehazteko inoiz egin den ahaleginik handiena ari gara egiten Euskal Herriko ikastola guztiok Plan Integralaren inguruan. Lurralde bakoitzean lan taldeak osatu dituzte, eta talde horiek dagoeneko bildu dute beren lurraldeari dagokion informazio guztia. Lurralde bakoitzari dagokion txostena ikastoletara banatu zaigu, eta hil honetan hasiko gara ikastolaz ikastola eztabaidatzen, abenduan lurralde bakoitzak bere eremuari dagokion Plan Integrala bozkatu ahal izateko.

Lan Talde Nazionalak lurralde bakoitzean onartu diren txostenak kontuan izanik, Euskal Herriko Plan Integralaren zirriborroari ekingo dio. Urtarrilean, ikastolen IV. Batzar Nazionala prestatzen hasiko da, Euskal Herri mailako txosten hori eztabaidatu eta bozkatzeko.

El pasado 24 de noviembre se celebró la Asamblea General de la ikastola. Al comienzo se dio lectura del saludo por parte del presidente de la ikastola. A continuación la directora dio un somero repaso a la gestión pedagógica. A continuación Agustín Vital, el administrador, repasó la gestión económica. Para terminar se trataron los temas más importantes de este curso escolar:

- * actualización de la cuota de transporte
- * cambios en algunos artículos de los estatutos de la ikastola
- * consorcio "Oiertzungo udal ikastola"
- * Oiertzo Batxilergo ikastola
- * Plan integral de las ikastola 2000-2005



HAURTZARO IKASTOLAKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEK "KONTSUMO TAILER MUGIKORRAK" PROGRAMAN PARTE HARTU DUTE



Haurtzaro Ikastolako proiektu orokorrean, ikasleak ingurunea baloratu eta bere zainketan eragileak izatea jasotzen da. Helburu hau lantzeko, eguneroko jardueraz baliatzen baldin badira ere, lehen hiru hileko honetan indar bereziz jorratu dugu. Izan ere, Haurtzaroko Lehen Hezkuntzako ikasleek "Kontsumo Tailer Mugikorrak" izeneko programan parte hartu dute. Honen bidez egungo kontsumo gizartean pertsona kontziente, kritiko eta arduratsu gisa jardutea ahalbidetuko dieten elementuak eskaini dizkiete Haurtzaroko arduradunek ikasleei. Kontsumoarekiko arrazoi eta erabaki egoikiak hartzerik izan dezaten beharrezko baliabideak ere erakutsi dizkiete.

Hori dela eta, oso programa interesgarria pres-tatu zieten bertako ikasleei. Lehen Hezkuntzako

lehenengo eta hirugarren mailako ikasleek **Elikagaien arteko konparazio analisiak** egin zituzten. Horrela, produktu bat aukeratzekoan, kontuan hartu beharreko aldagaiez hausnarketa egin zuten ikasle hauek. Era berean, elikagaien analisirako oinarritzko irizpide batzuk ezagutu zituzten. Gai honekin bukatzeko, publizitateak kontsumoan duen eraginaz ere hausnarketa egin zuten.

Bigarren mailako ikasleek **Umeen segurtasunaren** inguruan jardun zuten. Hori dela eta, istripuen eragile arruntenak ezagutu zituzten eta etxean edo inguruan aurki ditzaketen arriskuak ere bai. Bestalde, osasunarentzat arriskutsu izan daitezkeen ekintza edo gauzak baztertzea bultzatu zituzten, eta etxean, ikastetxean edo kalean arriskuak eta istripuak saihesteko zentzuz jokatzeko ikasi zuten.

Laugarren mailako ikasleek, berriz, **paperaren berziklaia** aztertu zuten. Tailer honen helburua izan zen baliabideak aurrezteko orduan paperaren birziklapenak gaur egun duen garrantziaz jabetzea, eta ikasleen artean papera aurrezteko beharra bultzatzea.

Bosgarren mailako ikasleek **euroaren tailerrean** parte hartu zuten. Tailer honen helburua ikasleak euroarengana hurbiltzea izan zen. Horretarako Europako moneta, euroa, ezagutu zuten, diru horrekin operazio sinpleak egiten ikasi zuten eta moneta-
ren ezarpenaren abantailak eta desabantailak ezagutu zituzten.





Bukatzeko, seigarren mailako ikasleek **ontziak eta euren berrerabilera** aztertu zuten. Horretarako, ontzigintzan erabiltzen diren material motak ezagutu zituzten; ontzi bat egiterakoan sortzen duen material eta energi-gastuaz jabetu ziren eta ontzi mota bakoitza nola berreskuratu ikasi zuten.

Egindako lanarekin gustura ikusi ditugu bai ikasleak, baita irakasleak ere. Azken finean belau-naldiz belaualdi pasatzen dugun altxorra da ingurunea. Altxor hau zaintzea gizakiok izan behar dugun konpromisoa da. Haurtzaroko kideak, heziketa ikuspegitik, gure ahalmenez horretan saiatuko gara, urtero bezala.

Los alumnos de Ed. Primaria han participado en el mes de octubre en los talleres de Consumo. Se trata de unas actividades que tienen un carácter puntual, centradas en un aspecto concreto del mundo del consumo y basadas en la actividad y autonomía del alumno.

Así organizamos seis talleres diferentes, uno por curso:

- ▶ 1er curso: Análisis comparativo de alimentos
- ▶ 2º curso: Seguridad infantil
- ▶ 3er curso: Análisis comparativo de alimentos
- ▶ 4º curso: Reciclaje de papel
- ▶ 5º curso: El "Euro"
- ▶ 6º curso: Envases y su reutilización

IKASPILOTA



Ikaspiilotatik bultzatuta, badira zenbait urte Haurtzarok parte hartzen duela proiektu polit honetan: 5. mailako ikasleak, pilota topaketetan eta DBHko lehen mailakoek, Herri kirolen topaketetan.

Topaketa hauek helburu zehatzak dituzte. Beste batzuen artean:

- ☐ Neska- mutiko guztiek ongi pasatzea gure joko eta jolasetan arituz.
- ☐ Gure jokoak baliabide hezitzaile bilakatzea.
- ☐ Euskal Herriko Kirolak ordu lektibotan lantzea.

Iaz 4.000 ikasle 30 topalekutan mugitu zituen ekintza honek. Izan zuen arrakasta kontuan harturik, aurtén, Oarso- Bidasoa bailaran, maiatzak 21-25 bitartean egingo da, ekintzak ugarituz eta lehenengo aldiz HH, LH, DBH eta Batxilergoko ikasleak inplikatur.



HEZIKETA AFEKTIBO SEXUALEKO SAIOETARAKO ADITU BAT IKASTOLAN

Euskal Herriko ikastetxe askotan hasi dira Heziketa Afektibo Sexuala ikasleekin lantzen. Toki batzuetan erlijioaren ordean lantzen hasi dira, beste batzuetan, berriz, arlo desberdinen gunetik. Hemen ere gai honi heldu nahi izan zitzaion, eta iazko ikasturtean hasita, Euskal Herriko Unibertsitateak plaza-ratutako materialen laguntzaz DBHko ikasleek heziketa mota hau jasotzen dute. DBH 2., 3. eta 4. mailako ikasleekin astean behin ordubeteko saioak egiten dira, honako helburuak lantzeko asmotan:



- ▀ Ikasleek sexualitateari buruzko **informazioa** izatea, hala nola sexu garapena, sexu portaerak, afektuak eta osasuna.
- ▀ Harremanak estutzea eta sentimenduen arloan gizarte trebetasunak hobetzea.
- ▀ Bakoitzak sexualitateari buruz dituen iritzi eta jarrerak osatzea, errespetu, askatasun, ardura eta baikortasunaren balioetan oinarrituz.
- ▀ Gizartetik komunikabideetan eta besteetan sexualitatearen inguruan jasotzen diren mezuak kritikoki baloratzea.
- ▀ Sexuen arteko elkar ezagutza eta eztabaida egoia lortu eta balore androginoak bultzatzea.

Jarduera honen baitan, eta ikasleek beraiek eskatuta, aurtan aditu bat, Amaia Vazquez, ekarri da ikastolara, talde bakoitzarekin bi orduko saioa egitera. Amaia Vazquezek esperientzia handia du sexualitatearen arloan. Euskal eskoletan gaia lantzen aspaldidanik hasi zen. Gazteen munduan, egun ezaguna da irratan egiten dituen saioen ondorioz. Ikastolako saioetan ikasleek aurrez bidalitako galderei eta momentuan egindakoei erantzuten die. Besteak beste "lehenengo aldiaz", masturbazioaz edo gazteekin duen esperientziak aritu da. Ikasleek gustura entzun eta parte hartu dute, eta orain artekoan, esperientzia ona izan da.

*En muchos centros de Euskal Herria se ha comenzado a impartir la disciplina denominada Educación Afectivo Sexual. Aquí, por segundo curso consecutivo trabajamos la Educación Afectivo Sexual con el material publicado por la UPV, con los alumnos de 2º, 3º y 4º de ESO. Los objetivos que orientan nuestro trabajo son la adquisición de **información** básica, la mejora de las habilidades sociales en el ámbito de los **sentimientos**, la expresión y profundización de las **actitudes** y **opiniones**, la **valoración** crítica de los **mensajes sociales**, en especial de los medios de comunicación y el diálogo y mayor comprensión entre los dos sexos, promoviendo los valores **andróginos**. Dentro de este proyecto, ha visitado el centro una sexóloga, **Amaia Vazquez**, de gran experiencia en el ámbito de la educación. Hasta ahora ha estado en dos de las clases respondiendo a las preguntas de los alumnos. La experiencia ha resultado interesante y positiva.*



DBH2koak ZERAINen

Eskola barruko ikasketen osagarri moduan joan den urriaren 31n egunpasa egin genuen.

XVI. mendean ustiatzeko baimena izan zuen Aizpeako meatzari barrutian burdin erauzketa eta eraldaketa aztertzeko beta izan genuen lehenik. Larraondoko zerrategi hidraulikoa berriz, XIX.mendean sorturiko ingeniarietza mekanikoa, martxan ikusteko aukera izan genuen goiz partearen bigarren zatian.

Arratsaldean, Zeraingo herrian kokaturiko 1711ko herri kartzela eta museoa bisitatuz bukatu genuen ibilaldia.



Larraondo zerrategi hidraulikoaren ubidea behatuz.

Ibilaldi honen bidez Natur Zientziarako Materiaren aldaketa eta Energia, Teknologiarako Mekanika eta Gizarte Zientziarako Informazio Iturrien analisia gaietan sakontzeko aukera izan dugu, bide batez, Goierriko Euskal hizkeraz ohartzeko beta ere bai.

1. HIRUHILABETEKO IRTEERAK

HAUR HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
H.H.1	URRIAK 20	TXARAKO BASORA	UDAZKENA BEHATU, BIZITU ETA GOZATZERA
H.H.1	AZAROAK 21	OIARTZUNERA	ETXE MOTA DESBERDINAK BEHATZEA
H.H.1	AZAROAK 24	DINOSAURIEN ERAKUSKETARA	DINOSAURIUEZ GEHIAGO JAKITEA
H.H.2	URRIAK 20	DONOSTIARA	TXILLIDAREN HAIZE-ORRAZIA ESKULTURA IKUSTEA
H.H.2	AZAROAK 9	ARISTIZABAL BASERRIRA	SAN MARTIN EGUNA DELA ETA TXERRIAK IKUSTERA
H.H.2	AZAROAK 22 ERAKUSKETARA	DINOSAURIEN	DINOSAURIUEZ GEHIAGO JAKITEA
H.H.3	IRAILAK 26	POSTETXEA IKUSTERA	ESKUTITZAK NOLA BIDERATZEN DIREN IKUSTERA
H.H.3	URRIAK 26	AIREPORTURA	GARRAIO MOTA DESBERDINAK EZAGUTZEA
H.H.3	AZAROAK 2	TRENEZ DONOSTIARA	GARRAIO MOTA DESBERDINAK EZAGUTZEA
H.H.3	AZAROAK 10	DINOSAURIEN ERAKUSKETARA	DINOSAURIUEZ GEHIAGO JAKITEA
H.H.3	AZAROAK 17	ESNEKIAK EROSTERA	YOGURRA EGITEA
H.H.3	ABENDUAK 14	BASERRI BATERA	GAZTA NOLA EGITEN DEN IKUSTERA



LEHEN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
1. MAILA	IRAILEAN	ARRAGUARA	OIARTZUNGO AUZOAK EZAGUTZEA
	URRIAN	ELIZALDE, UGALDETXXO,...	
	AZAROAK 10	KARRIKA ETA ERGOIEN	
	IRAILAK 25	ZINEMALDIRA	DINOSAURUEI BURUZ GEHIAGO IKASTEA.
	AZAROAK 2	DINOSAURUEN ERAKUSKETA	
2. MAILA	IRAILAK 25	ZINEMALDIRA	BASERRI GAIAREN SARRERA
	URRIAK 9	ZINERA	
	URRIAK 19	BASERRI BAT EZAGUTZERA	GAIA SAKONTZEN
	AZAROAK 13	DINOSAURUEN	EUSKAL HERRIAZ GEHIAGO JAKITEA ERAKUSKETA
3-4. MAILA	IRAILAK 25	ZINEMALDIRA	SOZIALIZAZIOA PROIEKTU OSAKERA
	AZAROAK	BARATZE 20,21,22	
5. MAILA	IRAILAK 26	KARRIKA ETA ERGOIEN	HARREMANAK SAKONTZEA
	AZAROAK 29	TOLOSARA	TXOTXONGILO TEKNIKAZ JABETZEA
6. MAILA	IRAILAK 25	ZINEMALDIRA	TXOTXONGILO TEKNIKA EZAGUTZEA
	AZAROAK 29	TOLOSARA	
	ABENDUAK 11	ZINEMARA	BALOREAK LANTZEA



DBH 1. eta 2. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
DBH 1-2	IRAILAK 15	ATEGORRIETA-PASAI SAN PEDRO OINEZ	IKASTURTE HASIERAKO LEHEN TOPAKETA
DBH 1-2	URRIAK 3	ON-BIDE ZINEMARA	ETIKA: BALOREEN LANKETA
DBH 1	URRIAK 31	IRUÑEKO PLANETARIUMERA	NATUR-GIZARTE ARLOENTZAT EKINTZA OSAGARRIA
DBH 2	URRIAK 31	ZERAINGO ZERRATEGIRA	TEKNOLOGIA-GIZARTE ARLOENTZAT EKINTZA OSAGARRIA
DBH 3-4	IRAILAK 14	SAN MARKOSERA OINEZ	IKASTURTE HASIERAKO LEHEN TOPAKETA
DBH 4	URRIAK 11	ON-BIDE ZINEMARA	ETIKA: BALOREEN LANKETA
DBH 3	AZAROAK 3	KOLDO MITXELENA KULTURGUNERA (ERAKUSKETA)	PLASTIKA ARLOARENTZAT EKINTZA OSAGARRIA
DBH 3	AZAROAK 13	TXINGUDIKO BADIA AZTERTZERA	BIOLOGIA-GEOLOGIA TAILERRARENTZAT EKINTZA OSAGARRIA
DBH 4	AZAROAK 20	ON-BIDE ZINEMARA	ETIKA: BALOREEN LANKETA
DBH 4	AZAROAK 22	KOLDO MITXELENA KULTURGUNERA (ERAKUSKETA)	PLASTIKA ARLOARENTZAT EKINTZA OSAGARRIA
DBH 1-2 eta 3-4	AZAROAN EGUN DESBERDINETAN	EUSKAL HERRIA ETA DINOSAURUAK ERAKUSKETARA(UDALETXEAN)	EUSKAL HERRIKO GEOLOGIAREN EZAGUTZA



OIARTZO BATXILER ESKOLA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
2 A	URRIAK 6	ARDITURRIRA	H ³ GEOLOGIKOA
DENAK	URRIAK 9	NIESSEN ORERETARA	ANTZERKIA: SEXU HEZIKETA
I	URRIAK 23	ONBIDE ZINERA	ETIKA
I	URRIAK 27	PHOTOMUSEUM ZARAUTZERA	INDUSTRIA IRAULTZA: ASMAKIZUNAK



ASTEBURUAREN ATARIAN

Gu bi urteko haurrak gara, Mari Jose, Rexu, Izaskun eta Ainhoarekin gaudenak. Asko gara eta guzti-guztiak ez dugu elkar ongi ezagutzen, horregatik denok batera elkartzeko aukera ematen digute gure hezitzaileek, ostiralero antolatzen dizkiguten ekintza berezien bitartez. Eta zergatik ostiraletan? Ba begira, denbora nozio hauek ulertzeko txikiegiak gara eta jai-aurrean hain gauza bereziak eginik astea bukatu eta jaia hasten dela konturatzen joango gara poliki-poliki. Horregatik ostiraletan, hezitzaileotako bakoitza pertsonaia berezi baten paperean sartzen da: Rexu, zeruko erregina; Mari Jose, amona zaharra; Izaskun, Argi ipotxa eta Ainhoa Paristik datorren artista.



Hasieran pertsonaia hauei errespetu pixka bat bagenien, baina pixkanaka-pixkanaka bagoaz elkarren lagun egin eta geroz eta gusturago igarotzen ditugu une hauek. Dagoeneko hasiak gara "bihar jaia" esanez, beti asmatzen ez badugu ere. Ekintza hauen helburua lortzen denborak lagunduko digu, eta bitartean guztiok ongi pasatzeko aitzakiatzat balio izango dute.

Larraitz, Diego, Imanol, Haizea, Maddi, Eneko, eta pilo bat gehiago. 52 arte..... pentsa!

2 URTEKO HAURRAK

Somos niños de 2 años que estamos con Mari Jose, Rexu, Izaskun y Ainhoa. Somos muchos y todavía no nos conocemos todos. Por eso todos los viernes nos reunimos todos para realizar actividades especiales, y así podemos conocer mejor. Así, todos los viernes, nuestras educadoras se convierten en diferentes personajes: Rexu en la reina de los cielos; mari Jose en una abuelita; Izaskun en el enanito de la luz y ainhoa en una artista que viene de París. Al principio nos asustábamos un poquito, pero cada vez les conocemos mejory nos hemos hecho amigos, por lo que cada vez disfrutamos más.

Larraitz, Diego, Imanol, Haizea, Maddi, Eneko... y muchos más. Hasta 52



**4 URTEKOEK SAN MARTIN EGUNA
OSPATU DUGU**





TXILLIDAREN ARTELAN BAT
EZAGUTU DUGU:
DONOSTIAN DAGOEN
"HAIZE ORRAZIA"

AIREPORTUA EZAGUTZEN

GAIA GARRAIOAK IZANIK
AIREPORTURA BISITALDI BAT
ANTOLATU GENUEN.

BERTAN AIREPORTUKO ZERBITZUAK
IKUSTEKO AUKERA IZAN GENUEN.

ONDOREN BERTAKO SUHILTZAILEEK
ERAKUSTALDI BAT ESKAINI ZIGUTEN.



EG-ASKI NADATORRELA!



MIKRUHILTSAILEAN WAHIDUT


BAI KAMIOTI HAU DIAK





OIARTZUN LEHEN

OIARTZUNGO HISTORIARI BEGIRADA BAT
EMANEZ ARDITURRIKO MEATEGIETARA
IRITSI GARA ETA BERTAKO TRENAREN
GORABEHERAK AZTERTUZ, ONDORIO
HAUEK ATERA DITUZTE LEHENENGO
MAILAKO IKASLEEK.



SANTA BARBARA


ARDITURRIKO TRENA

LEHEN BIDE GORRI-A
ARDITURRIKO TRENA ZEN
GERO BIPE GORRIA BIURTU
ZEN.
BI GEL TOKI ZUZKAN BAT
ALTZIBARREN ETA BESTEA
ERGOIEN ETA TRENAK
IZENA ZUEN SANTA BARBARA
MINETATIK MINERALA ATERA
TZEN ZUTEN ETA TRENAK
PASAIAKO PORTURA ERA MATEN
ZUTEN.

Behia agaztuna da. Behia belar jalea da.
Behia 15 urtetan zaharra dago, ardo pisatzen du
820 kilo pisatzen du antzerkian behiak. Behiak kanga
ankelato bizi dira. Behien gorotzak belar bide zela
abaratzen. Etxekorra jaiatzen dute. Etxearekin
mantekilla, igerria, txakalata, matilla eta gata sartzen dira.
Eskuluan azkizalak handitu eta istarrak
handitu egiten gaizkia.
Egileak: Mikel eta Maizabel

BASERRIA

2. MAILAKOAK, BASERRIA
GAIAREN INGURUAN,
HIZTEGI BAT OSATZEN
ARI GARA BERTAKO
ANIMALI, LANABES
ETA BARAZKIEKIN.
ONDORENGO HAU
ADIBIDE BAT DUZUE.





BULBO LANDATZEN


Gelan landatu ditugun bulboak hauek izan dira: jazintoa, narzisoa eta tulipana. Badakizue zergatik landatu ditugun bulboak? Nola jaiotzen diren landareak eta bere sustraiak nola hazten diren ikusteko. Baita ere, pixka bat, guk ikasteko landareak landatzen eta landareei buruz gauza batzuk.

Horretarako lorontziak lehioetan jarri ditugu, ura izan dezaten eta landarea jaio dadin. Guk landatu ditugu bulboak. Nola? Lurra lorontzira bota dugu eta hiru zulo egin ditugu. Bulboak zuloetan jarri eta dena prest dagoenean handik pixka batera landareak jaioko dira.

3. MAILAKO IKASLEAK



BARATZE



3. eta 4. mailako haurrak Baratze baserri eskolan izan dira.

Bertan izan diren haurrei galdera hau luzatu diegu:

"Zer izan da gehien gustatu izan zaizuna?"

Honelako erantzunak jaso ditugu:

"Dena gustatu zait:

Zaldian ibiltzea gustatu zait zuk gidatzen duzulako. Behiari esnea kentzea ere asko gustatu zait, errapeak plastilina ematen duelako eta niri plastilinarekin jolastea asko gustatzen zait"

"Baratzen mahaia guk prestatzen genuen eta gauean ohera joaterakoan txorakeriak egiten genituen"

"Baratzen asteartean Eguzki izeneko zaldi bat ikusi genuen eta Pitusaren gainean ibili ginen. Izeko izeneko asto batek magia egiten zuen."

"Behiari esnea kentzea, zaldian ibiltzea eta Txarliren kanta gustatu zitzaizkidan, zaldia oso motel ibiltzen zelako"

"Diskotekan oso ondo pasa nuen dantza eta dantza."

Gustura pasa zutela dirudi, ez da? Ala bada, datorren urtean errepikatu nahiko ote dute?



Las/os alumnas/os del 2º ciclo de primaria han estado en la granja escuela Baratze. A nuestra pregunta de ¿Qué es lo que mas os ha gustado? La respuesta a sido casi unanime al decir que todo. El curso que viene seguro que quieren repetir..



DBHKO IKASLEAK IKASGELETATIK KANPO

Aurtengo ikasturte honen hasieran ere DBHko ikasleak geletan ez ezik geletatik kanpo gogotsu aritu dira lanean eta ikasten.


1. Iazko ikasturtean bezala, aurtengo ere, DBH-2. mailako Zientzia Tailerreko ikasleak eta DBH-4. mailako Biologia-Geologiako ikasleek Euskal Herriko kostaldearen zatitxo bat zientifikoki aztertzen jardun dute. **Azterkosta'2000** kanpainan parte hartzearekin batera, CEIDAKo taldeak **"Euskal Herriko Itsasoa"** deitu eta sortutako Erakusketa Ibiltaria aztertzeko aukera izan dugu urrian, Oiartzungo Liburutegian. Honako erakusketa DBH-2. zikloko ikasle guztiek ikusteko parada izan dute.



Ondoko argazkian, DBH-4. mailako ikasleak Interneten nabigatzen ez ezik, bene-benetan, eta ez birtualki soilik, Txingudi Badia barkuz zeharkatzen ikus daitezke. Oiartzungo haranetik irten eta Irun-Hondarribia-Hendaia herrien inguruneetan dauden ekosistemak "in situ" ezagutu ditugu.

2. Bestalde, Arazandi Taldeko Geologia Sailak Oiartzungo pleno-aretoan antolatutako erakusketa zoragarria dastatzeko aukera izan dugu. **Dinosauruak eta Euskal Herria** izeneko erakusketa honetan, Iberiar Penintsulan dinosauruek utzitako fosilen ikerketatik abiatuz, egun hain ezagunak suertatzen zaizkigun animalia erraldoi horietaz gehiago jakiteko aukera eskaini zaigu. Gure ustez, oso interesgarria izan da ikerlariak bildutako material honekin guztiarekin erakusketa iraunkorra antolatu eta eraikitzea; hala nola, Dinosauruen biologia ezagutzeaz gain, Oiartzungo haranaren balio geologiko aberatsa herritar, zale eta ikasleentzat begi-bistan eduki ahal izan dugu.





3. Azkenik, Zientzia arloetan sutsu aritu bagara ere, ikasleen jakin-mina ez da horretara mugatu. DBH-3 eta DBH-4. mailako artista gazteak Donostiako Koldo Mitxelena antolatutako **Gure Arteak 2000** erakusketa ikusi eta aztertu dugu plastikako irakasleen laguntzaz. Irteera honetan euskal artista gazteak zein joera artistikotan dabilzan ulertzeko erreferentzia interesgarriak aurkitu ditugu.

Beraz, geletan eraikitzen goazen jakintza eta errealtatea sortzen den lekuan bertan ezagutzeko jakin mina elkarren eskutik jarri nahi izan ditugu. Gerora ere bi alorak uztartzen (ezagutza/errealitatea) jarraituko dugu, hortik soilik datorkigulako **benetako ikasketa**.

Zientzia tailerra



2000/2001

Zientzia Tailerra



HAURTZARO
ikastola

Azterkosta



Usue Juanes Rekalde

Bene-benetan

Hautzaroak asko markatzen omen du norbere izaera.

Bizitzaren zentzua ikasten eman genituen lehen urratsetan lagun izan zintuztegun.

Eskutik heldu gabe, bakoitzari bere bidegidorra aurkitzen lagunduz, ia-ia aurkitzera derrigortuz, gudan sinestuz, orduko urratsetan lagun izan zituztegun.

Ikastola bukatu genuenean, haurrak haurregi iruditzen zitzaizkigunean, helduek hautzat gintuztenean, gaztaroaren lehen urratsetan lagun izan zintuztegun.

Eta orain, zeuen eredua, askatasunarena, arrunkeriatan erori gabeko sinpletasunarena; zeuen eredua izango dugu lagun bizitzaren filosofia ulertzen hasi garen lehen urratsetan.

Haizezko laztan bat zuretzat, panpoxa

ikasle ohiak

Gure irakasle eta lagun ona zara.
Zu gure alboan izateak, merezi izan du
Momentu onak pasa baititugu elkarrekin.
Gure artetik,
Bihotzean hutsune handi eta sakona utzirik joan zara,
Baina, beti izango zaitugu gure oroimenean.
Jakin ezazu, Usue, asko maite izan zaitugula, eta orain gure
Alboan ez egon arren, maitatzen jarraituko zaitugula.

Zure ikasleak

Tant de temps

Le temps qui passe
le temps qui ne passe pas
le temps qu'on tue
le temps de compter jusqu'à dix
le temps qu'on n'a pas
le temps qu'il fait
le temps de s'ennuyer
le temps de rêver
le temps de l'agonie
le temps qu'on perd
le temps d'aimer
le temps des cerises
le mauvais temps et le bon et le beau et le froid et le temps chaud

le temps de se retourner
le temps des adieux
le temps de colombes
le temps qu'il est bien le temps
le temps qui n'est même pas
le temps de cligner de l'oeil
le temps relatif
le temps de boire un coup
le temps partagé
le temps de mourir
le temps d'attendre
le temps qui ne se mesure pas
le temps mort
... e puis l'éternité



▲ Otsailak 1979



▼ Inauteriak 85



▲ Inauteriak 83



▲ 1. promozioa 83/84



▲ Zuhaitzaren eguna 86



▲ "Korrika-Itiki" 87



▲ Madriden, 87ko martxoan



▲ "Santa Ageda 92



▼ Kilometroak 9

▼ Inauteriak 94



▲ DBH 1- A 99/00

Ez dakizu, Usue,
zein zaila egiten ari zaigun sentimenduak hitzetan jartzea.
Zein zaila guregan izan duzun eraginaren berri
adieraztea.

Nola jakin udazkeneko egunik ederrena aukeratuko
zenuela hegan egiteko.

Hala ere, hemen dago zure kabia eta
goxatzen gaituzten zure irri ozenak, zure begi handi
argiak,
zure laguntasun hitzak,
zure kemena eta izaera berezia,
zure sinisme eta eguneroko lanean
inplikazioa.

Eta orain kontutzen gara
zure lankideak izanik,
irakasleak izanik, zurekin ikasle izan gaituzula
BIZITZAREN ETA BIZITZEAREN etengabeko lezio
honetan.

Bai Usue: agur nola esan ezin asmatu-
zuregana joan nahi dute bihotz hauen taupadak
xamurtu nahirik, hara zertaz ohartu garen:
ZURE AGURRA LASTER ARTE BAIN EZ DELA.
Zure hegada
ez dela ihesi joatea izan, udako oporren luzapen bihurria baizik.

**Uso zuria errazu
Nora joiten zira zu
Bide luzea, ARGIZ BETEA
Inon topatzen badezu,
Txolarte eta osatu
Gure artean badezu.**

Hautzaro Ikastolari, Milesker.

Lerro xume hauen bitartez, ahal dudan moduan, eskerrak eman nahi dizkiot, nire eta Usueren famili oso-
aren partez, Hautzaro Ikastola osoari. Guregatik egin duzuen egun latz hauetan ahaztezina zaigu: Kon-
tseilu Erretorearen jarrera; Zuzendaritzaren hurbiltasuna; irakaslegoaren laguntza, babesa eta maitasuna;
ikasle eta ikasle ohien sentimendu hunkitua eta eskaintza; gurasoen presentzia, ... Hitzak irristakorrak eta
kalifikatiboak ase-ezinak egiten zaizkigun. Hau guztia nolabait laburbiltzeko etortzen zaidan hitza GIZA-
TASUNA da. Eta ikastetxe batek bat-batean hainbesteko gizatasuna demostratzeko gai izateak, bere bar-
nean zer edo zer ongi egosten ari dela adierazten du.

“...
zu izango zara
bihotzean den
suarentzako erretxina.”

Benitoren bertso hauekin gogoratzen dut Usue. Hautzaroko ikasleek ere euren bizitzaren momenturen
batean antzeko sentimenduren bat Ikastolaz edukiko balute ederra litzateke. Horretarako, har dezagun
Usueren lekukoa: bere irrifarra, gozotasuna, sendotasuna, lanak “tajuz eta gertto” egiteko jarrera eta ikas-
leak bere osotasunean hartzea: GIZAKIGINTZA. Horrela, bide batez, gu geuk ere gizakiago bilakatzen
joango baikara.

ELIAS A.



ZORIONTASUNAREN BIDEAN

Gauko hamabiak ziren. Maindire beltz batek zerua estaltzen zuen, eta haizearen ezpatak itsasoa olatuetan puskatzen zuen. Ni, urari begira nengoen, beste 19 pertsonekin batera, hau baretuko zelako itxaropenarekin. Denak, arrazoi berdinagatik geunden, usteldurik zegoen egurrezko txalupa txiki baten aurrean: Pobrezia aspaldi iritsia zuen gure etxeetara eta egia esan, Afrikan bizi modua ez zen batera eroso. Cadiz oso gertu egonik, benetan desberdinak dira bi lurraldeak. Putzu txiki hori zortearekin zeharkatzeak gure guztiz aldatuko luke. Baina noski, familia lehenengo aldiz uzteak sortzen dituen beldurrak, kontuan hartzekoak dira. Esperientzia berri batean murgiltzera gindoazen, gure bizitza horretan bakarrik oinarritzen zelarik.

Jada ordu bata zen, eta urduritasuna gure inguruan nabaritzen zen. Nire bihotzak inoiz baino indartsuago egiten zuen eztanda. Momentu hartan, etxe txuri batzuen atzetik, gizon zuri bat azaldu zen. Gure herriko gameluen antzeko bizkar okerra edukitzeaz gain, beste bi handikote zituen bere atzean. Dudarik gabe, bera zen, gure alboan zegoen txalupatxoaren jabea. Eta egun batean gure diru guztia kendu ziguna aukera batengatik. Keinu batez, untzian sartzeko esan zigun. Banaka, banaka, kontu handiz, 20ak sartu ginen. Itsasoa oso astindua zegoen eta txalupa alde batetik bestera eramaten zuen. Batek baino gehiagok hanka uretan sartu zuen, baina ez zen ezer larririk gertatu. Gizon indartsuenek arraunak hartu zituzten, eta poliki, poliki, kostaldetik urruntzen joan ginen. Dagoeneko olatuek busti gintuzten, era beldurraren dardarak hotzarenarekin batu ziren.

Bat-batean, gugandik gertu, itsasontzi erraldoi ikusi genuen. Abiadura bizkorrean zetorren, gainera, guregana. Petrolioia eramaten duten 200 metro-tako ontzi zaharra zen. Gure indar guztiekin hau saihesten saiatu ginen. Beraiek, noski, ez ziguten ikuste, eta dudarik gabe, laster irentsiko gintuzten. Nire ondoan, 8 urteko mutiko bat zegoen, malkoak aurpegitik txirristaka zituelarik. Konturatu nintzen-erako, uretara bota zen, ahal zuen moduan igeri egiten, beno egia esan, denak bota ziren, petroloa oso gertu baikenuen. Ni, ez dakit zergatik, beldurrak geldirik utzi ninduen. Ezin nuen mugitu. Itota banengo bezala. Nire gorputzak ez zituen nire buruko mezuak entzuten. Norbaitek besotik gogor heldu eta tira egingez uretara bota ninduen.

Ur hotza sentitzean, berriro normaltasunera itzuli nintzen, eta ezer pentsatu gabe, atera nintzen

igerian. Petroleria gure txaluparen ondotik pasa zen, baina ez zuen apurtu. Oso nekea zen uretan igeri egotea eta jendea poliki-poliki, ondoratzen hasi zen. Nire bizitza momenturik desatseginenak izan ziren zeren nire lurraldeko jendea ikusten bainuen eta nik, berriz, esku bat ere ezin nien bota. Dagoeneko, 20 pertsonetatik 10 bakarrik geunden bizirik. Gure patera oso urruti utzi genuen eta oso nekaturik nengoenez buruz gora jarri eta begiak itxi nituen hotza nire odolean nola barneratzen zen sentituz. Lo geratu nintzen, zeren begiak zabaldu nituenean eguna baitzen eta, gainera, ontzian sartuta nengoen. Segur aski, ontzia berreskuratu eta ni barruan sartu ninduten. Buruz gora eta etzanda nengoenez, zerua eta inguruan nituen lagunak ikusten nituen. Zutitu nintzenean nire ikuspegia bestelakoa izan zen, munduko pozik handiena hartu nuen. Hondartzatik bi metrotara geunden! Bi pertsonak, txalupatik tiratzen zuten, hau hondarraren gainean jartzeko. Indarrik gabe nengoen eta hankak tiraka atera nituen txalupatik. Azkenean lurra! Politegia egia izateko. Eguzkiak nire azala nola berotzen zuen nabaritzen nuen. Hondar lehorraren gainean etzan eta zeruko hodeiei begira geratu nintzen. Baina nire irribarrea soinu gogor batek suntsitu zuen. Pan, pan! Bi tiro entzun nituen nire alboan. Lurretik altxa era nire ingurura begiratu nuen denak desagertu ziren. Ez dakit zergatik, berdez jantzitako gizon batzuk niri begira zeuden. Min bat, bihotzean, sentitzen hasi nintzen eta asko ahultzén nindoala ohartu nintzen. Nire odola zen! Begiak itxi eta amets arraro batzuetan murgildu nintzen. Segur aski hiltzen ari nintzen, zeren bi tiroak ikusten den bezala niri bota zizkidaten. Beno agur munduari eta agur bizitzari... Oraindik zer bait entzuten nuen, eta norbaitek nire izena esaten zuen.

- Ali esnatu!

Zergatik esaten zidan ahotsak esnatzeko, hiltzen ari banintzen?

- Ali! Esnatzeko esan dizut! Esan zuen berriz ere emakume ahots horrek. Begiak zabaltzea ideiarik onena izango zela pentsatu nuen. Alajaina! Nire alboan segoena nire ama zela ohartu nintzen eta ni nire etxean nengoen nire lastozko ohearen gainean.

Jakina, inoiz ez naizela Espainiara pasako, nire gezurrezko esperientzia ez baitzen oso ona izan. Hala ere beti jakingo dut hori dela zoriontasunaren bidea.

Eduarne Pascual DBH 3.A



Z E R G A T I K ?

Zure begien kresal usainak bizitza aldatu zidalako?

Zure ezpainen paradisuen ateak irekitzen dizkidatelako?

Zure irria kandela urtuezina delako?

Haizearen melodiekin bat zatozelako?

Lo aurreko instanteen jabe zarelako?

HONENGATIK SOILIK MAITE AL ZAITUT? EZ.

Deabruen aingeru zarelako,

Gau iluneko argi printza zarelako,

Eurietako aterki zarelako,

Malkoen painulu zarelako,

Udako ihintza freskoa zarelako,

Basamortuan ura aurkiarazi didazulako,

Zaren larrosak arantzarik ez duelako,

Ying-Yang eko zuria zarelako,

Zure amaraunean harrapaturik nagoelako,

Norbait naizela erakutsi didazulako,

Heriorekin elkartzeko gogo deuseztu didazulako,

Zugatik sentitzen dudana azaltzeko mutu geratzen naizelako,

Zoriontasunaren ateak zabaltzen dizkidazulako,

Zurekin bihotz taupaden indarra handiagoa delako,

Nire aurpegian irri bat marrazten duzulako,

Zure besoetan kukil nahitekeela dakidalako,

Maitasunugarra piztu zenidalako,

Zarena zarelako:

Agian horregatik maite zaitut.

ALAIA MARTIN (DBH. 2. MAILA)



HUMANITATEEN DEKRETUA DELA ETA

Azken aldi honetan Hezkuntza, hezkuntza-sistema bera, ia eguneroko hizpide dugu hedabideetan. Arreta mediatiko hau ez da hezkuntza-sistematik bertatik sortutako ekimenen ondorio (ez genuke besterik nahi), baizik eta, zoritarrez, hezkuntza-sistemaren erabilpen politiko-alderdikoaren iharduera jakin batetik eratorria.

Eguna joan eta eguna etorri, zehaztasun gabezia, burugabekeria, tergibertsazioan, itxuragabekeria, baita irainean eta faltsukeria ere, oinarritutako adierazpen-olde baten aurrean gaude.

Atsekabez ikusten dugu kanpaina honek esistitzen ez den harremana ezarri nahi duela, hezkuntza-sistema, euskarazko irakaskuntza, balizko xenofobia, arrazakeria, inkompetentzi profesionala, bortizkeria, ikaslegoaren gaitasun eza, dotrinatze ideologikoa eta abarren artean.

Kanpaina honen sustatzaileei bost axola ikastetxeetako errealitateak marraztutako egoerarekin zer ikusirik ez badauka. Bost axola salaketa hauen aldeko datu bat bera ere ez badago. Bost axola orain arteko azterketa eta ebaluazioek alderantzizkoa badiote.

Funtsean, euskarazko irakaskuntzaren aurka, ikastetxeen autonomiaren aurka eta hezkuntza-sistemaren profesionalen aurka egindako eraso baina ez da, urteetan zehar pazientzia handiz eraikitakoaren aurkako eraso, beraz. Horretarako, errealitatea eta datuak bestelakoak direnez, tergibertsaziora, manipulaziora eta gezurretara jo dute.

Horregatik guztiagatik, salatu egin nahi dugu kanpaina hau eta jokabide horretan etsi dezatela esijitzen diegu arduradunei. Aldi berean, zerbitzatu behar duen gizartean erroturiko heziketa kalitatezko eta propioarekiko konpromisoa berresten dugu.

De un tiempo a esta parte la Educación, el sistema educativo, es tema de actualidad casi diaria en los medios de comunicación. Esta atención mediática, que más quisiéramos, no es producto de iniciativas realizadas desde el propio sector educativo, sino que, lamentablemente, se deriva de un intento político partidista de utilización del sistema educativo.

Día tras día asistimos a una cascada de declaraciones basadas en la inexactitud, el despropósito, la tergiversación, el impropio, incluso el insulto y la falsedad.

Observamos con desagrado que esta campaña pretende establecer una supuesta relación del sistema educativo y la enseñanza en euskera con la xenofobia, el racismo, la incompetencia profesional, la violencia, la falta de capacitación del alumnado, el adoctrinamiento ideológico, etc.

Poco importa que la realidad de los centros educativos nada tenga que ver con el panorama dibujado. Poco importa que no haya un solo dato que avale estas acusaciones. Poco importa que los estudios y evaluaciones realizados hasta la fecha indiquen lo contrario.

Se trata, pura y simplemente, de desprestigiar un paciente trabajo de años, de un ataque a la enseñanza en euskara, a la autonomía de los centros y a los profesionales del sistema educativo y para ello, como los datos y la realidad son otros, se recurre a la tergiversación, a la manipulación y a la mentira.

Por todo ello, queremos denunciar esta campaña y exigimos a los responsables de la misma cesen en su actitud, al tiempo que reiteramos nuestro compromiso con una educación propia de calidad e incardinada en la sociedad a la que debe servir.



JULEN IDARRETA:

- Samboa eta judoa kirol egokiak dira hezteko.
- Euskal Herriaren alde lehiatuz gero, motibazio handiagoa izaten da.



Koxkero-koxkerotzat du bere burua. Eta aipamen hori eskuratzeko merituren bat behar bada, Julen Idarretak guztiak eskuratuak ditu, Donostiako Alde Zaharrean jaio baitzen duela 40 urte. Bihotzaren taupadek Oiartzun aldera bideratu zituzten Julenen pausoak, eta 1986an oiartzuar batekin ezkondu zen. Gaur egun, lau oiartzuarrez inguratuta bizi den donostiarra dugu: Josune, emaztea eta Julen, Miren eta Izaro seme-alabak. Duela gutxi bete zituen 10 urte Julenek aurreraren 12ko Guardia Zibilaren egunean jaio baitzen, bere aitak aldeaz aurretik iragarritako desioa, Gudari Egunean jaioko zela alegia, erabat zapuztuz; Miren agertu zen mundura lau urte geroago, eta Izarok, familiako txikienak, bi urterekin aurten estreinatuko du Haurtzaro ikastolako gela. Koxkero tituluaz gain, beste batzuk ere badaramatza bere motxilan, batzuk besteak baino astunagoak, seguru asko. Espainiako txapeldun izana eta Europako txapelketan parte hartutakoa judon, Euskal Herriko selekzionatzailea sambon eta, gaur egun, Euskal Herriko Sambo Federazioko lehen-dakari dugu Idarreta. Horren guztiaren gainetik, ordea, Oiartzunen eta Donostian jarduten duen judo eta sambo irakasle adoretua da bera.

– Nondik datorkizu borroka-kirolarekin duzun lotura?

– Sei urterekin hasi nintzen Donostiako kaian zegoen Judo Klubean. Oso mutiko lotsatia nintzen, harremanetarako nirekoia eta mediku edo psikologo baten gomendioak jarraituz, gurasoek judo ikastera eraman ninduten. Ez futbolerako eta ez pilotarako ez nintzen oso trebea eta, poliki-poliki, judoa zela niri egokitzen zitzaidan kirola ikusi nuen. Urte haietan Estatuko hoberenak ginen. 1967 eta 1968ko lizentziak daukat, garai haietako "Frente de Juventudes"ek emanak. Orduan derrigorrezkoa zen hori. Arraunean ere jardun nuen, baina judon emaitza hobeak lortzen genituen, horrekin geratu nintzen.

– Eta nola iritsi zara Euskal Herriko Samboko Federazioko zuzendari izatera?

– Ez bokazioz; nire ustez, urteek eta praktikak eraman naute toki horretara, nahiz eta borrokan edo prestatzaile lanak egiten askoz ere gusturago senti-

tzen naizen. Judoarekin maila internazionalera iritsiak ginen 1984an, eta orduan Euskal Gobernuak, Federazio Internazionalaren birmoldaketarekin, sambon Euskal Herriko Selekzioa sortzeko abagunea ikusi zuen. Ordura arte, nazioartean samboa borroka greko-erromatararekin eta librearekin batera zegoen eta, geroztik, bere federazio propioa eratu zuen. Abagune hori aprobetxatu genuen Euskal Herriko Selekzio gisa sartzeko. 1984ko maiatzetan bi txapelketa jokatu ziren; Europakoa Leioan jokatu zen eta guk euskaldun gisa hartu genuen hor parte. Euskaldunek lehen aldiz hartu zuten parte ofizialki. Dena dela, Espainiako Selekzioa aahuldua gera ez zedin ituna hitzartu zen, eta astebetara Espainiarekin jokatu nuen. Hortik aurrera bai, beti Euskal Selekzioarekin aritu izan naiz.

– Geroztik izan dituzue nahiko istilu eta eragozpen Euskal Herriko Selekzio gisa jarraitu ahal izateko.

– Bai, eta orain, momentuz bederen, kanpoan gaude. Baina txapelketa batera aurkeztzen bagara, beti onartzen gaituzte. Hor gabiltza, hanka bat kanpoan eta bestea barruan. Egia da, bestalde, samboak ez duela maila olinpikora iristeko aukerarik, hor judoa dagoelako, eta bi kirolek elkarren antz handiegia dutelako, baina nazioarteko txapelketetan ibiltzeko aukera izan dugunez, bertan jarraitzen dugu. Militantzia gisa pixka bat. Euskal kirolariak garenez, ahal badugu ireki dugun zirrikitu horri eutsi behar diogu, ea hortik abiatuta zirrikitua zabaltzea lortzen dugun, eta beste kirolak ere hortik pasatzen diren.

– Judoa, samboa, karatea... borroka hauei buruz ezer gutxi dakigunoi, nola azalduko zenizkiguke kirol hauen ezaugarriak?

– Judo teknika guztiak erabil daitezke sambon, estrangulazioarena izan ezik. Eta sambo teknika guztiak, arerioa helatzeko era batzuk eta lurreko teknika batzuk izan ezik, judokoak bezalakoak dira. Antz handia dute bi borroka mota



hauek, futbolarekin eta futbitoarekin gertatzen den bezala. Karateak, berriz, kolpeak, ostikadak eta ukabilladak lantzen ditu. Judoak eta samboak ere erabiltzen dituzte teknika horiek, baina defentsarako erabiltzen dira soilik.

Judoak eta samboak hiru oinarri dituzte: kirol gisa garatzea, heziketa fisiko orokorra izatea eta azkenik, defentsa pertsonalerako gaitasuna edo funtzionalitatea ematea. Kirolean, arauditik kanpo geratzen dira kolpeak eta horrelakoak, baina defentsarako prestakuntzan jarduten denean, polizia edo militar taldeak prestatzean, orduan bai, kolpeak eta gauza bortitza goak ere erabiltzen dira.

– Samboa ezaguna da Oartzunen eta Euskal Herrian. Beste herrialdeetan ere hala gertatzen da?

– Agian ez dagokion protagonismoa eskuratu du Euskal Herrian, nazioartean atera garen bakarrak izan garelako. Ez dut hori esaten samboa kirol erraza delako, ezta gutxiagorik ere. Kirol zaila da, eta hor dabilen jendea oso prestatuta dago, baina kirol txikia da eta batez ere European eta sobietar herrialdeetan garatu da. Sobietar jatorria du. Sobietar Batasunaren garaian, hogeitik gora borroka-kirol mota zituzten. Guztiek elkarren artean borroka egin ahal izateko araudi bateratua eratu zuten eta, beraien borroka folklorikoei greko-erromatarra eta borroka librea erantsiz, defentsa pertsonalerako disziplina propioa sortu zuten. Sobietarrek, hainbeste armada eta polizia izanik, etekin handia ateratzen zioten kirol mota hau bultzatzeari.

– Oartzungo hurrei samboa bakarrik erakusten al diezu?

– Samboa erakusten diet, baina bi disziplinatarako prestatzen ditut. Hamabost edo hamasei urterekin ikasle guztiak gerriko beltza izatera iristea da nire helburua. Gerriko beltza izatea judoka dela esatea da; bitartean, proiektu bat da.

– Zertan lagun dezake samboa bezalako disziplina batek heziketan?

– Heziketa fisikoari dagokionez, hamabost urteko judoka batek nolako garapen harmonikoa duen begiratzea besterik ez dago. Giharrak, malgutasuna... Psikologia aldetik aztertzen badugu, norberak dauzkan gaitasunak plazaratzea lortzen da. Pertsona urduria eta oso ausarta denean, bera baino gehiago den norbait topatzen du, eta bere indarra orekatu behar du nolabait. Eta, aitzitik, oso apala denean, apaltasun horretan ezin dela geratu antzematen du eta ireki egiten da, oreka lortuz. Borroka hauetan, judon, sambon, greko-erromatarrean edota librean, asko ukitzen dute elkar, eta norberaren indarra erabiltzeaz gain, bestearena ere menderatu behar da. Fisikoki oso kirol gogorak dira, gorputzak eginahal handia egin behar du. Karatean, berriz, edo boxeotan, kolpeak bakarrik erabiltzen diren kirolean, norberaren gorputza erabiltzen da soilik eta fisikoki askoz ere errazagoak dira. Ez da hainbeste mugitu behar, norbera bakarrik mugitzen da eta. Judon edo sambon kaloria kopuru bikoitza erretzen da orduko boxeotekin edo karatearekin konparatuz. Eta oso nekatuta bukatzen da... horrek ere eragiten du psikologian.

– Guraso askok animatzen dituzte beren seme-alabak judoa edo samboa ikastera. Moda kontua al da?



– Judoaz eta samboaz iritzi ona dute gurasoek. Heziketarako kirol mota egokiak direla esaten da eta, zergatik ez... gaur egun, nork bere burua babesten jakitea ere gauza ona da. Umeari igeri egiten erakusten badiogu arriskurik izan ez dezan, zergatik ez diogu erakutsiko borroka-kirol bat lasaigo senti dadin edo larrialdi bat gertatuz gero ahalik eta ondoen atera dadin... Horrek ez du esan nahi ni Van Damme edo horrelako arlote bat prestatzen ari naizenik; pertsona orekatua eta, behar izanez gero, bere burua babesten dakiena prestatzen ari naizela baizik.

– Eta hurrek, zergatik hautatzen dute kirol mota hau? Telebistako filmek eraginik ba al dute erabaki horietan?

– Ez, zeren filmetan ikusten duten eredu eta guk azaltzen dieguna oso kontrajarriak dira. Guk erakusten duguna askoz ere bideratuagoa dago umeen beharretara, eta ume horrek behar duen garapenera. Inola ere ez gezurrezko fantasiara. Fantasia ere erabil daiteke heziketan, baina pelikula horietan gertatzen diren borroka guztiak gezurra dira. Filmetan ikusten diren borroka saio guztiak kolpeka egiten dira eta, aldiz, kalean gertatzen diren borroka guztiak gorputza gorputzaren kontra izaten dira. Bestalde, borroka egiteak, bai irabazten duenarentzat eta bai



galtzen duenarentzat, ona izan behar duela azaltzea ere bada gure helburua, eta guztiaren gainetik jartzen dugu gure lagun arerioari minik ez ematea. Bestea menderatzeko gai izaten erakusten diegu, baina minik eman gabe. Beste kirolek lesionatzea edota arerioa lesionatzeko gaitasuna izatea dute helburu.

- Nesken eta mutilen artean ba al dago ezberdintasunik kirol mota hauek egiterakoan?

- Duela sei urte, ni hasi nintzenean, neska asko apuntatu ziren Oiartzunen; gero, pixka bat jaitsi egin da kopurua, baina Donostiako Judo Klubean, esaterako, ikastoletako 80 haur dauzkagu, eta neska asko daude tartean. Oiartzunen, Haurtzarok eskolaz kanpoko ekin-tza asko eta onak eskaintzen ditu, eta, normala denez, haurrak sakabanatu egiten dira ekin-tza desberdinetan.

Neskei dagokienez, onartu behar dut duela hogeitaz urte ez nuela gustuko neskek borrokan ikustea. Aurreiritzi matxista bat, noski. Urteen buruan, ordea, neskek beraien borroka estiloa garatu dute, eta gaur egun gizonezkoek baino hobeto egiten dituzte gauza asko. Estrategia aldetik, adibidez, askoz ere zehatzagoak eta eragingarriagoak dira. Lurrean arituzekoan ere malgua izateak asko laguntzen du, eta horretan neskek mutilek baino teknika politagoak lortzen dituzte. Ez daukate gizonezkoek duten indarra, baina beste gauza batzuk dauzkate. Gaur egun berdin gozatzen dut nesken edo mutilen arteko borroka ikusten.

- Haurtzaro ikastolan zure bi semeen irakasle zara... Zer moduz moldatzen zara irakasle-eta aita-lanak batera egiteko?

- Beraientzat okerragoa da, norbaitek kaskarrekoen bat jaso behar badu beraiek jasotzen dutelako... une horietan irakasle izateari uzten diot eta aita izatera pasatzen naiz. Baina alde onik ere badu... harremana askoz ere zuzenagoa da; aitaren esana irakaslearena baino garrantzitsuagoa izan daiteke, eta, alde horretatik, abantaila dute. Musika irakasle baten semeak edo alabak abantaila edukiko lukeen bezala. Zerbait esaterakoan, badakit nola esan

behar diodan nire semeari, ongi ezagutzen dudalako.

- Oiartzunek emango al du aparteko sambolari edo judokarik?

- Oso zaila da. Gaur egun, Euskal Herrian, kirol profesionaletatik ateratzen dira kirolari apartak, futboletik edo txirrindularitzaletatik alegia. Judoka oso onak egon daitezke, baina hamasei urterekin, bizibide izango dutena ikasten hasten direnean, kirol hauek bigarren mailan geratzen dira, berez ogibide bihurtzea ezinezkoa delako. Estatu espainiarrean osatu den kirol egitura nahiko barregarria da. "ADO" sortu dute, baina itxura egiteko besterik ez. Estatu frantseseko egitura aztertuz gero, liluratu egiten gaitu: marketina eta kirol gestio serioa egiten dute, eta ez goi mailan soilik, oinarritzko mailan ere bai. Espainolek egin duten piramide oso oinarri estukoa da. Kirol batzuk diruz lagundu eta alde aurretik ontzat ematen ziren kirolariak sartu dituzte "ADO" plan horretan. Propaganda handia egin dute, baina emaitzak hor daude: Sydney Espainiak 10 domina lortu ditu, Frantziak 40 inguru eta Italiak 30.

- Euskal Selektzioarena ezinezko ametsa al da zuretzat?

- Ni pertsona baikorra naiz. Bizitzaren maila guztietan. Gutxiena espero dugunean gauzak alda daitezkeela pentsatzen dut, eta euskal kirolaren arazoak beste arazo guztiekin batera izango du irtenbidea. Kirolak bide miragarri bat aurkituko duenik ez dut uste, arazo guztiak elkarri lotuta daudelako. Arazoa orokorra da, eta gure kirolaren esparrua arazo horren atal bat da. Kirolaren atala, gainera, oso esanguratsua suertatzen da, aberriaren erakusleho gisa erabili izan da-eta... Ez dugu ahaztu behar kirolariak zerbait behar badu, beste edozer baino gehiago, hori motibazioa dela, eta abertzale batentzat Espainiako selektzioarekin edo Frantziako selektzioarekin jokatzeko ez da batere erakargarria. Halabeharrezko zerbait da. Euskal Herriaren alde lehiatuz gero, motibazio handiagoa izaten da. Norberaren identitatea eta nortasuna defendatzen dira-eta, ez besterenak.

Mertxe Aizpurua

TXINPARTAK

Entrenatzailea:

Kirolariak daukan onena atera behar duen maisua.

Lehia:

Halabeharrezkoa.

Galtzea:

Ikasgai interesgarria.

Esfortzua:

Benetako garaipena.

Gerrikoa:

Tinko lotu, baina estu ez.

Ikaslea:

Gehien irakasten duen ikasgaia.

Euskara:

Ama-hizkuntza.

Ikastola:

Herriaren lorpena.

Haurtzaroa:

Magia.

Aitatasuna:

Magia sortzeko aukera.



ELIKADURAK KEZKATZEN GAITU

Joan zen ikasturtean, 1999-2000, Haurtzaro ikastolako LHko 3. eta 4. mailako ikasleei inkesta bat pasa genien beraiek jaten zituzten elikagaien inguruan. Hauxe da jasotakoaren kronika txiki bat:

HELBURU OROKORRA

9 eta 10 urteko ikasleen janari eta kontsumo ohiturak ezagutzea.

LAGINA

Horretarako Haurtzaroko eta Orereta-Erretereriako Koldo Mitxelena Herri eskola aukeratu genituen. Guztira Haurtzaroko 100 ikasle eta Koldo Mitxelenako 39 ikasle izan ziren inkesta erantzun zutenak.



	HIRUGARREN MAILA		LAUGARREN MAILA		GUZTIRA
	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	
HAURTZARO IKASTOLA	20	29	23	28	100
KOLDO MITXELENA	7	14	9	9	39
GUZTIRA	27	43	32	37	139

BALIABIDEAK

Proiektu hau aurrera ateratzeko bi lagun hauek parte hartu zuten Haurtzaro ikastolaren kasuan:

IRASTORZA GARAÑO, Aloña: erizain diplomatua

IRASTORZA GARAÑO, Eskarne: Albaitaritzan lizentziatua (Bromatologia arloan)

ERANTZUNAK

Janariaren ohituraren inguruan informazioa lortzeko hainbat bide daude. Kasu honetan "Reuerdo 24 horas" izeneko galdeketa hautatu zen, eta horretarako 5 egun jarraian Haurtzaroko ikasleek galdeketa bete zuten klase orduetan.



Hauxe da jasotakoaren ondorioa:

- ▶ %9 baino gehiagok ez du egunero gosaltzen. Dieta osasuntsu batek egunero gosaltzea aholkatzen du. Gosari horretan esnekiak, zerealak, ogia edota gailetak, zukua edo fruta, gurina edo olio sartu beharko genituzke. Beraz, ezinbestekoa dugu eta asko azpimarratu behar dugu gosari ona egitea oso beharrezkoa dela.
- ▶ %23,52k bakarrik jaten du zer edo zer atsedendian. L. Ros jaunak "Nutrición en pediatría" (1999) izeneko liburuan dio ikasleei lauzpabost janari eskaintzea oso beharrezkoa dela, hau da, 3 ordu nagusi eta 1 edo 2 askari (goiz erdian eta arratsaldean). Oso interesgarria da otorduak beti ordu berean egitea. Nahiz eta adin hauetan malgutasun pixka bat beharrezkoa den ere, tarteka gauza txikiak jatea oso ona da.
- ▶ %10,29k dio ez duela beti afaltzen. Kontuan hartu afa-riak kaloria orokorren %25-30 izan beharko lukeela. Beraz, behar beharrezkoa da egunero afaltzea.
- ▶ %36,76k jantokian bazkaltzen duenez, oso egokia iruditu zaigu bertan ongi eta nahikoa jaten ikasi behar dutela aipatzea. Horretan ahalegintzen dira Haurtzaroko arduradunak.
- ▶ Azpimarratzekoa da edari alkoholikoen kontsumoa: %13,22k ardoa probatu-edaten du eta %11,02k garagardoa. Haur baten elikaduran ezin dugu alkohola duten edaririk sartu. Ura da edaririk beharrezkoena.



- ▶ %27k baino gehiagok kafea hartzen du eta %77,2lek Coca-Cola. L. Rosek dioenez ez zaie eskaini behar kola eta tonikorik bizigarriak baitira, kafea eta tea bezalaxe.
- ▶ 1a-ia 3. eta 4. mailako ikasleen herenak 5 egun horietan litxarkeriak jan zituen, beraz jasotako erantzunak aztertuz saiatu behar dugu kaloriak bakarrik eskaintzen dituzten janarien orde, etxean egindako ogitarteko txikiak, fruta, esnekiak edo fruitu lehorrak eskaintzen eta ahal den gutxien "bollería" eta gozokiak. Gainera, era horretako produktuek jateko gogoia murrizten dute eta eragina dute karies gaixotasunean.
- ▶ %34 ikaslek baino gehiagok inkesta jasotako egunetan ez zuen leharirik jan. Normalean oso egokitzat jotzen da asteen 3 aldiz gutxienez jatea. Era berean, %70ak baino gehiagok ez zuen behar adina fekula jan. Beraz, saiatu behar dugu pasta eta zerealak jaten.
- ▶ Berdura eta fruten alorrean, berriz, ikusi dugu %10ak ez zuela berdurarik jaten eta %40k ez zuela frutarik jan. Hau ez da batere osasuntsua, izan ere frutak eta berdurek bitaminak, fibra eta mineralak ematen dizkiote gure gorputzari eta haurren garapenean beharrezkoak dira.

- ▶ Bukatzeko ikusi da haragia arraia baino gehiago jaten dela. Ume guztiek haragia jan zuten, baino %20k ez zuen arrainik jan bost egun horietan. Datu horren arabera, haragi eta txerriak gutxiago jan beharko genituzke eta arrain gehiago, batik bat arrain urdina bere koipe onuragarriengaitik.

Honek guztiak zera adierazten du: **gure jan ohiturak izugarri aldatzen ari direla eta etorkizunean pertsona orekatuagoak eta osasuntsuagoak nahi baditugu gure esku dagoela, helduon esku beraz.**

KONTUAN HARTU:

- HARAGI, AZUKRE eta GOXOKI gutxiago jan behar ditugu.
- FRUTA, BERDURA, LEKARIAK, ZEREALAK (PASTA eta ARROZA) ARRAINA eta ESNEKIAK gehiago jan behar ditugu.
- ALKOHOLA eta EDARI PIZGARRIRIK ez haurrentzat.
- Otorduak (gosari-bazkari-afari) eta meriendak bere garaian egin, alerik ahaztu gabe.

ESKARNE IRASTORZA GARAÑO, Haurtzaro ikastolako gurasoa, eta lan honen egilea

El pasado curso escolar realizamos una encuesta entre los niños de 3º y 4º de Ed. Primaria para conocer los hábitos alimentarios y los patrones de consumo de los niños de esta edad.

MUESTRA

La población de estudio la constituyeron todos los niños escolarizados en los niveles de tercero y cuarto de Ed. Primaria en dos centros escolares: Haurtzaro Ikastola y Koldo Mitxelena de Erreterria-Oretea.

La muestra estaba representada por un total de 139 alumnos matriculados en el curso lectivo 1999/2000. 100 alumnos matriculados en Haurtzaro ikastola y 39 en el Koldo Mitxelena Herri Eskola.

RECURSOS

En el proyecto han intervenido:


- ▶ Irastorza Garaño, Eskarne: Licenciada en Veterinaria (Bromatología)
- ▶ Irastorza Garaño, Aloña: diplomada Universitaria en Enfermería.

RESULTADOS

Para obtener información sobre los hábitos dietéticos de una población, existen diversos métodos. Nosotras elegimos la encuesta "recuerdo 24 horas" con registro de 5 días semanales. Se pidió a los propios alumnos que cumplimentaran el cuestionario, con la ayuda de los tutores-as.

Analizando los resultados totales comprobamos que:

- ▶ Más del 9% de los niños encuestados no desayuna todos los días. Una dieta saludable aconseja la ingesta diaria del desayuno, incluyendo lácteos, cereales, pan o galletas, zumo o fruta, y mantequilla o aceite. Es por tanto necesario que insistamos en la importancia de realizar un desayuno completo desde el punto de vista nutricional.
- ▶ Sólo hay un 23,52% de alumnos que toma algo en el recreo. Según apunta L. Ros en su capítulo "Alimentación del escolar" del libro "Nutrición en pediatría" (1999), es recomendable ofrecer de 4 a 5 comidas al día, o sea, 3 comidas principales y 1 ó 2 meriendas (a media mañana y a la tarde). Es interesante establecer un horario regular de comidas. Aunque el patrón de ingesta es caprichoso y poco estable durante esta etapa, hace necesaria cierta flexibilidad, e incluir el consumo de pequeñas raciones entre horas.
- ▶ Ante el 10,29% de niños que no cena siempre, cabe destacar que en una distribución calórica aceptable dentro de la jornada, según L. Ros, la cena debería aportar el 25-30% de las calorías totales.
- ▶ Teniendo en cuenta que un 36,76 % de encuestados come en el comedor escolar, pensamos que es necesario reforzar los mensajes de la alimentación sana, ya que el comedor escolar es un lugar para practicar y comer sano, tal y como se esfuerzan los responsables de Haurtzaro.



- ▶ Destaca el consumo de bebidas alcohólicas. Hay un 13,22% de niños que consume vino y un 11,02% cerveza. El agua es la única bebida indispensable. Las bebidas alcohólicas no deberán figurar en la alimentación del niño.
- ▶ Más del 27% de niños consume café y el 77,21% Coca-Cola. Según L. Ros los tónicos y las colas se desaconsejan en menores de 14 años por ser excitantes, al igual que el té y el café.
- ▶ Casi un tercio de los encuestados consumió golosinas durante los cinco días que duró la encuesta. A la vista de los resultados, han de iniciarse medidas para limitar el consumo de calorías vacías entre horas y favorecer el consumo de pequeños bocadillos caseros, frutas y lácteos, y limitar el consumo de productos de bollería y pastelería, ricos en azúcares refinados y grasas. Este tipo de producto disminuye el apetito, y por esta razón el niño no ingiere el aporte de alimentos necesarios en su dieta básica, además de la relación existente entre un elevado consumo de sacaros y la caries dental.
- ▶ Más del 34% de los niños no consumió legumbres durante los días en que se pasó la encuesta. Las recomendaciones de una dieta equilibrada indica como ideal un mínimo de 3 veces por semana. Del mismo modo, más del 70% no consumió las raciones de féculas recomendadas. Es por tanto necesario que insistamos en el consumo de legumbres, patata, patatas y cereales.
- ▶ Una dieta saludable aconseja la ingesta diaria 2-3 raciones de alimentos ricos en Calcio, habiendo monos de un 20% de niños que cumplen con esta recomendación. Nos hallamos pues ante la necesidad de potenciar el consumo de lácteos.

- ▶ En cuanto al grupo de frutas y verduras observamos que más de un 10% de niños no consumió ningún día verduras, y casi un 40% no tomó fruta. Esto se debe considerar negativamente, ya que estos alimentos aportan vitaminas, fibras y minerales, necesarios para el correcto desarrollo del niño.
- ▶ Por último, observaremos una mayor frecuencia de consumo de carne frente al del pescado. Todos los niños encuestados habían consumido carne, mientras que una quinta parte no había consumido pescado ningún día. En función de estos datos, habrían que recomendar disminuir la ingesta de carnes y embutidos, y aumentar el consumo de pescados, haciendo hincapié en los pescados azules por su contenido en grasas insaturadas.

CONCLUSIONES

Los hábitos alimentarios y los patrones de consumo de los escolares encuestados se alejan del equilibrio de la dieta mediterránea, y se caracterizan por:

- Una excesiva ingesta de CARNES, AZÚCARES y DULCES.
- Una insuficiente ingesta de FRUTAS, VERDURAS, LEGUMBRES, FÉCULAS, PESCADOS y LÁCTEOS.
- Un llamativo consumo de ALCOHOL y otras BEBIDAS EXCITANTES.
- Una inadecuada distribución de los alimentos durante el día.

ESKARNE GARAÑO, madre de Haurtzaro ikastola y responsable de la encuesta



Carlowen ingelesa ikasten berrogeita lau ikasle, horien artean Irati Martiarena Haurtzaroko ikaslea



Udan, Irlandan ingelesa ikasteko, Ikastolen Elkartek egiten duen eskaintzetako bat da. Bertan, ingelesa praktikatu eta ikas dezakezu, baina baita Euskal Herriko puntu desberdinetako jende ezagutu ere. Irlandan ingelesa ikasteaz gain, bizitzaz ere gauza asko ikas ditzakezu.

Lehenengo pausua animatzea da, Irlandara joateko nahia sortzea. Hasieran, agian, ez duzu gogorik edukiko, ingelesa ondo ez dakizulako edo bakarrik zoazelako. Nire kasuan behintzat, horrela izan zen, ni bakarrik joan nintzen, eta hasiera batean, ez nuen batere gogorik. Gainera, lehenengo aldia izango zen Irlandan egongo nintzena, nahiz eta orain dela urtebete Karaezera (Bretainiara) joan nintzen bigarrenengo aldiz. Karaez eta Irlanda oso desberdinak dira. Alde batetik herria, Karaezen etxeek kolore iluna dute, gris antzekoa, eta Irlandan, berriz, argiagoa eta koloretsuagoa. Bestetik jendea, Karaezekoak oso jatorrak dira, baina Irlandako jendeak ematen dizun konfiantza baino gehiago ez dizu inork emango. Beraz, ikusten duzuenek, ezin nuen ideiarik, biak oso desberdinak baitira. Baina azken finean, bi lekuetan oso gustura egon nintzela konturatu nintzen.

Behin joan nahi duzula erabaki ondoren, Ikastolan izena eman eta bilera bat egiten da, Zarautzen edo Sopenan, eta han dena zehazten dizute. Horrez gain, bertan nolako egoera topatuko duzun esaten dizute. Bilera horrekin bakarrik, askoz hobe sentitu nintzen eta jada, harantz joateko gogoia sartu zitzaidan. Han, eman beharreko adierazpen guztiak ematen dizkizute. Hasteko dena esplikatzen dizute eta bukaeran txosten bat ematen dizute, beharrezko datuak biltzen dituen: bertara joateko aholkuak (pasaportea, ekipaia, familiarentzat oparia, dirua, telefonoa, aseguruia, monitoreak, zure familia, klasea, ekintzak eta irtenaldiak, kontuan hartu beharrezkoa eta arau orokorrak), irteera eta helmuga, zure familiaren

datuak (izen- abizenak, helbidea, telefonoa, seme-alabak, hobiak eta animaliak) koordinatzailearen eta monitoreen Irlandako datuak, Irlandako mapa, eguneroko plangintza eta Irlandari buruzko aldizkaria, eta honekin guztiarekin batera, motxila eta kamiseta, irteeran eta helmugan jatzeko beharrezkoa dena, inor ez galtzeko. Beraz, hau dena jaso ondoren, beldurrak atzean utzi nituen.

Bi taldetan iritsi ginen Irlandara, bat Iruñetik ateratzen zen hegazkina, eta bestea Bilbotik. Nik Iruñeko hegazkina hartu nuen, Donostiatik Iruñera joateko autobusa jarri zuten, horrela, gurasoek ez zuten gora eta behera ibili beharrik, ostegun batean irten baikinen. Autobusa hartu eta Iruñera joan ginen, eta aireportuan hanka jarri bezain azkar bi lagun egin nituen. Beraz, jakin ezazue, Euskal Herri guztian badagoela jende jator asko, oraindik ezagutzen ez duguna, eta zu ezagutzeko pozez gainezka dagoena. Hegazkina hartu eta Dublinera joan ginen, eta ondoren autobusez Carlowra.

Irlanda oso atsegina da, jendea etxeetan bizi da eta ez pisuetan. Oso mendi gutxi daude, ia dena laua da. Eguraldia euritsua da, baina ez ditu izugarritzko euri jasak egiten hemen bezala, xirimiriak baizik, denbora luzean irauten dutenak. Azkenik, jendearen izaera, nik entzuna nuen oso alaiak eta jatorrak zirela, baina inoiz ez nuen pentsatu hainbesterako izango zenik, bene-benetan diotsuet. Arazo bat baduzu, txikia bada ere, beraiek aukera baldin badute, zuri laguntzeko prest egongo dira, eta bestela, beste norbaiti laguntza eskatuko diote zuri laguntzeko.

Niri, justu, Dublinetik Carlowrako autobus bidaian, nire familiak azken momentuko baja eman zuela esan zidaten, osasun arazoagatik, baina lasai egoteko esan zidaten, jada beste familia bat banuela. Aurreko familia ez nuen ezagutu, baina tokatu zitzaidana ez nukeela ezergatik aldatuko ziur nago. Etxekoan familia ere ezagutu nuen. Hauek bi seme gazte zituzten eta hauen bi aldetako izeba-osabak eta aitona-amonak ezagutu nituen. Gainera, hauekin izugarritzko berriketak edukitzen genituen: batek irakaslea zela, eta euskarako hitz batzuk bazekizkiela eta gehiago jakin nahi zuela; besteak, berriz emakumeen arteko elkarrizketa bat, eta ama bi alaben eta nire artean izugarritzko barreak botatzen ibili ginen. Honekin esan nahi dizuet, etxean bezala sentituko zaretela eta agian baita gusturago ere.

Goiza bi zatitan banatzen zen. Lehenengo zatian, klaseak ematen genituen, material desberdina erabiliz. Giro ona egoten zen. Bigarren zatian ere oso atseginak izaten ziren, jokoak egiten genituen, eta honela, jendea ezagutu, ingelesa praktikatu eta ondo pasatzen genuen. Arau bakarra zegoen, ingelesez soilik hitz egin behar genuela.



Klaseak hasi ziren, eta hau izan genuen eguneko plangintza:

MONDAY	TUESDAY	WEDNESDAY	THURSDAY	FRIDAY	SATURDAY	SUNDAY
			Arrival	Classes *** activities	Excursion to Dublin	Family day
Classes *** activities	Classes *** bowling	Classes *** activities disco	Classes *** activities	Classes *** activities	Excursion to Gglendaloug	Family day
Classes *** activities	Classes *** activities	Classes *** activities disco	Classes *** activities	Classes *** activities	Excursion to Wexford	Family day
Classes *** activities	Classes *** bowling	Classes *** activities disco	Classes *** activities	Classes *** activities	Excursion to Dublin	Family day
Classes *** activities	Classes *** activities	Classes *** activities disco	Departure			

Bazkariak oso bereziak ziren. Niri bi sandwich txiki jartzen zizkidaten, barruan batzuetan letxua, tomate, arrautza eta maionesa zuena, eta bestetan atuna... Ez baztzaizun gustatzen familiari esatearekin nahikoa zen gustuko zer edo zer bazkaltzeko. Ondoren, pastelxo bat, fruta bat eta bukatzeko zumoa. Irlandan dena egosia preparamen dute, ez dute olio ezertarako erabiltzen. Nire etxeko andreak patatak zuritu, zatitu, plastiko poltsa batean sartu eta mikrouhinean sartzen zuen, ondoren labera, eta hau irekiarekin gorritu arte uzten zituen. Tipula ere asko erabiltzen dute azenario egosiarekin batera.

Arratsaldetan ekintzak egiten genituen, Irlandako joko tradizionalak... Bi aldiz joan ginen boleara, eta afizionatu bat bihurtu nintzen. Ikastola 4:30ean amaitzen zen, eta ondoren etxera joaten ginen afaltzera. Zazpietan, etxe inguruak elkartzen ginen herrira joateko beste lagunengana. Zazpietatik, hamar eta erdietara edukitzen genuen denbora. Gehienetan Snookerrera joaten ginen, hemen bi bilarrezko eta jolasteko makinak zeuden, taberna antzeko bat ere bazuen, baina ez zuten alkoholdu edaririk saltzen. Beste batzuetan ere, handik ondoan zegoen parke batera joaten ginen. Bi leku hauetan lagunak egin genituen, neskak eta mutilak, gazteak eta heldueak, eta denak irlandarrak noski, baina Bartzelonako mutil bat ere topatu genuen, ondoren gurekin ibiltzen

hasi zena. Hau dena diskoteka edukitzen ez genuen egunetan egiten genuen, dantzaldia hotel batean egiten zen. Oso ondo pasatzen genuen, Euskal Herriko eta Espainiako jende ugari baitzegoen, eta gainera, nahi gabe ezagunak topatzen zenituen.

Larunbatetan ibilaldiak egiten genituen herri desberdinetara. Bertan denbora librean uzten ziguten herria gure gustura ikusteko. Batzuetan museoetara joaten ginen, besteetan gazteluetara...

Igandean familia eguna, familiarekin hitz egiten genuen, nahi bagenuen lo egin edo nonbaitera joan, edo bazkaldu ondoren lagunekin aterara... aukera mordo bat genuen egiteko. Beraz, ez genuen batere gaizki pasatzen.

Hilabetea pasa ondoren, izugarritzko lagun pila egiten dituzu, Orkoingoak, Beasaingoak, Gernikakoak, Iruñekoak, Basaurikoak, Gasteizkoak, Ondarroakoak, Casala rreinaoak... eta azkenean ez duzu etxera joateko gogorik. Erdien bizitza dakizu, eta beraiek zurea, eta hilabete ondoren, sortutako lagunatasuna eta elkartasuna egun batean sakabanatzen da. Triste da, bizitzan benetan lagundu dizuten lagunengandik banatzea, baina nire ustez, merezi du momentu txar hori pasatzea Irlandan familia batean hilabete bat pasatzeagatik.

Irati Martiarena, DBH 4. mailako ikaslea

La Federación de Ikastolas organiza todos los veranos diferentes ofertas para la práctica del inglés en verano. Así organizamos el proyecto Enjoy English, que llevamos a cabo en nuestra ikastola con alumnos de 8 a 14 años de edad con monitores de Irlanda y Reino Unido. También alumnos de 1º, 2º y 3º de ESO participaron en los campamentos de inglés organizados en Zarautz, Sopela, Bermeo y Bernedo. Por último, dos alumnos de 3º y 4º de ESO participaron en una estancia de un mes en un pueblo de Irlanda, Carlow. Así Irati Martiarena, una de las participantes, nos cuenta cómo se animó a participar en dicho proyecto y cómo transcurrió ese mes. Esta alumna anteriormente había participado en dos estancias en Karaez (Bretaña), que había organizado la ikastola para perfeccionar el francés aprendido a lo largo del curso.

La ikastola sabe que este tipo de programas tienen una aceptación cada vez mayor y se volverán a organizar para el año que viene.



HAURTZARO MENDI TALDEAREN IRTEERAK



A mestu al duzu noizbait filme erromantiko edota abenturazko batetako protagonista izatearekin? Ba, zure filme propioko protagonista izan zintezke Hollywoodera joan gabe, oso urrutira jo gabe, Haurtzaro Mendi Taldeko irteerekin, egin kontu.

Paisaia ikusgarriak, leku berriak, esperientzia berriak, giro ona, lagunartean iji-ajak. Eta gehiago biltzen ditu gure mendi taldeko irteerak bakar batek: Euskal Herriko mendiak igo, eskiatu, rappelatatu, tirolinan jaitsi, eskalatu, kanoiak jaitsi, kaskadetan behera murgildu, ... zer? Hainbeste gauza egiten al dira? Ba bai, egia da.

Jo, igande batean goizeko zazpiretan esnatzea ere mendi kutre bat igotzeko... "pentsa dezake batek baino gehiagok, eta hau da guk jartzen dizuegun erronka: ez al du pena merezi igande batean argiarekin batera esnatzea egun mundial bat pasatzeko baldin bada?

Ziurrenik, hainbeste orriren artean Mendi Taldekoa jasotzen duzuenean ez diozue begiratu ere egingo, eta, Aramis Fuster izan gabe, seguru hau irakurtzen ari zaretenen erdiak orririk gabe iritsiko direla etxera: zaborretan, mahai-azpian, kale bazter batean, ... auskalo non gelditu ote den Ernoria joateko ibilaldiaren plangintza!!!

Pentsatzen duenak mendi bat igotzea guztiak igotzea bezala dela, oker dabil: gainera, Haurtzaro Mendi Taldeak

aukera dextente eskaintzen du. Egun osoko irteerak, egun erdikoak, asteburukoak. Mendi bat igotzea, Landetan edota Nafarroan txirringaz ibiltzea, eskiatzea, kanoiak jaitea, rappelatzea, ... Aukeran dago gustua, eta hor guztitik zerbait gustatuko zaizu, ezta?

Kurtso berria hasi da, aurrera ere badoa, eta, bai ongi!!! Laister GABONAK!! Gurasoei hau eskatu, izaba-osabei bestea, aiton-amonei beste gauzatxoren bat... Baina dena da gutxi! Ea nire lagunaren lehengusinarekin Ameriketako izaba ere nitaz oroitzen den eta besterik ez bada, *souvenir*ren bat bidaltzen ote didan... Eta orain zuen buru azkar horietatik zera ari da pasatzen "eta zer pinta-tzen du horrek mendi talde batean?" Eta agian ez duzue erantzuna asmatu baina ... abenduko irteeran hamaiketa-koa gure kontu! Zer, gaizkiz? Zerbait, zerbait da...

Hori bai, guk ere trukean zerbait eskatu behar eta... zer izango ote? Ba gure ibilaldietara etortzea!

Oporrak bukatu dira berriz ere (jo, ze pena!) eta nedira irteerak hasten dira (beno gauza on bat bukatu eta bestea hasiko balitz beti). Beste tontor bat igo eta iada hotzak eta elurrak zerutik lurrera etorri zaizkigun eta zer ote da hobe eskiatzea baino? Ba ezer, gabatxo hoiei inbidia gutxi guk: beraiek aste zuria izango dute, baina guk gure asteburu zuria ere bai.



"Udaberrian abiatu nintzan, dama gazte bat topa-tzen..." , gu ez gara abiatzen dama gazte eder baten bila, baina bai igande zoragarri baten bila, beraz, Narinoren jarraitzaileak izanik (edo Olanorenak, bestea jubilatzen zen eta) bizikleta hartu eta pedalei ematera, 2001eko Tourrean ea parte hartzerik izango ote dugun,...

Azkeneko urte hauetan maiatzean leku beretsura joaten gara gauza antzekoa egitera: Landetara bizikletan bueltaxka bat ematera. Ibilaldi xamurra izan ohi da, Landak lautada baitira. Alferrik handienak ere nekatu gabe ibiliko litzake bide haietan zehar, beraz, zuek atera kontuak alferren eskalan zein zenbaki hartzen duzuen. Esan beharrekoa eskalak 10 arte soilik dauzkala zenbakiak, baina beti egon ohi denez marka guztiak hausten dituen bat, ba hortik gorakoak ere onartuak direla esatea besterik ez gure txangoetan.




Ekaina!!!!!!!!!!!!!! Zer esan nahi du horrek? Ez dugu erantzuna eman beharrik, denok ondo aski dakigunez,... Ikasturteari amaiera paregabe bat emateko urtero aste buru bat kirol berri eta desberdinak praktikatzeko pasatzen dugu. Taldea joan izan da espeleologia egitera, Artikutzara, edo iaz bezala kainoiak jaistera.

Inoiz mendia gustatu ez zaionari ere tentagarri egingo zitzaion gure taldearen planteamendua, egia? Eta hau ez da jendea animatzeko testu bat soilik, hori guztia bete egiten da. Beraz, badakizue, irakasleak orriak banatzean zer adierazten den irakurri eta "Hautzaro Mendi Taldearen Irteera" jartzen duena behintzat etxera eramanez, gurasoei baimena eskatzeko, gutxienez.

Inoiz ez da berandu eginbeharra ona bada.

Hautzaro Mendi Taldea





1. IZENBURUA: Misterioa Pirineotan.
2. EGILEA: Josu Lartategi.
3. ARGITALETXEA: Aizkorri.

Argumentua:

Behin mutiko batzuk
pirineotara joan ziren. Beraiek
bakarrik kanpin eta guzti.
Gau batean suaren ondoan
eserita zeudela, bat-batean
itzal haundi bat ikusi zuten.
Zer da itzal hori? Zerbait
gertatuko al zaie?

MISTERIOA ZEUK
ARGITU, LIBURUA
IRAKURRIZ! ! !


ANIMA ZAITEZ !!!




Neguko puzzlea

Falta diren puzzle-zatiak irudian koka itzazu.

Marraz ditzakezu paisaia osatzeko. Kasu, kontuz ! Bat gehiegi duzu !



OLAGARRO GAIXOA!





HIZKI ZOPA: BILA ITZAZU!

SUGANDILA

OILOA

ASTOA

ZISNEA

UNTXIA

ARMIARMA


ZALDIA

BEHIA

S	U	G	A	N	D	I	L	A
Z	G	N	F	O	I	L	O	A
A	H	F	T	X	U	K	G	E
L	E	B	K	X	O	L	S	N
D	H	B	E	H	I	A	J	S
I	I	A	O	T	S	A	X	I
A	R	M	I	A	R	M	A	Z

LABIRINTOA

Leire, Josune, Itziar eta Jannire Xabierrekin maiteminduta daude. Nork lortuko du Xabierren bihotzera heltzea?????




Zein da birritan agertzen ez den irudia?




Binan binan berdinak dira.

1 →	6 →
2 →	7 →
3 →	8 →
4 →	9 →
5 →	10 →



EZBERDINTASUNAK

Keo faraoia triste dago argazkian zortzi gauza aldatu dizkiotelako. Lagun iezaiozu hauek aurkitzen.



ERREZETA



Gazta tarta



Basean Osagaiak:



155 gr. Budina pomada



250 gr. Ogirina



Arrautz bat



20 gr. Azucra



Olio txorrostada bat



Gatza pixka bat



Nola egin basea:

Osagai guztiak ondo nahasi eta borobil bat egin, ondoren plástico batekin tapatu behar da, eta frigorifikoan sartu behar da lau bat Orduan.

Orduak pasa ondoren maza zabaltu, eta moldean tapatu eta berriro tapatu papel albalekin eta gaiean garbanzu batzuk bota, eta labean sartu 180 ° 30 minutuan.

Dembora pasa ondoren, garbanzoak eta albala kendu behar dira, eta horrela basea egina dago.

Tarta Osagaiak:



125 gr. Azucra



Lau Arrautz



700 gr. Nata liquida.



50 gr. Gazta roquefort.



San millan edo Philadelphia bote bat.



Nola egin tarta:

Danak ondo, ondo nahastu eta koladore batean basa, ondoren moldean bota eta labean sartu 125° 35 edo 40 minutuan eguki behar da.

Oharra: flan bezala geratu behar du.

Oztutakoan mermelada jartzen zaio nahi den gustotakoa, Obetona frambuesarena gelditzen zaio.

Aurre matrikula epea, laster irekiko da.

Agur bero bat

Con el Nuevo Año, comienza la pre-matricula para el próximo curso.

Un saludo

HAURTZARO IKASTOLA



DENON ESKURA

*gizarte-ekintza
obra social*

